

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTARAKO GIDA

1- HITANOA ONGI ERABILI

Hitanoa erabiltzeak eskatzen du hiztunak aditzean marka ezberdina uztea solaskidearen generoaren arabera:

- "Erretzeari utzi iezaion" (Emakume bati, NOKA)
- "Erretzeari utzi iezaio**k**" (Gizon bati, TOKA)

Solaskidea ez denean pertsona bakarra edo genero bakarrez osaturiko taldea, desegokia da atzizki maskulinoak erabiltzea. Alde batetik, "ZU" tratamendua erabiltzea izango litzateke oberena. Baina beste estrategia batzuk ere erabili daitezke: inperatiboaren kasuan, ez da ezinbestekoa aditz laguntzailea jartzea.

Adibidez: "Ekar ezak hire proposamena"

- ***Ekarri hire proposamena***
- ***Ekar ezazu zure proposamena***

2- GIZONA HITZA MODU ESPEZIFIKOAN ERABILI

Euskaraz "Gizona" hitza bi modutara erabili izan da. Alde batetik gizonezkoak bakarrik izendatzeko eta bestetik gizon nahiz emakumezkoak izendatzeko. "Pertsona arra= gizakia" eragiketa hau sahiesteko, "gizona" zentzu espezifikoa soilik erabiltzea gomendatzen da, hau da, solik (pertsona arra izendatzeko)

Adibidez: " Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten gizonak?"

- ***Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten pertsonak / gizakiak?***

Bestalde, hainbat hitz elkartu daitezke "gizon" osagaiarekin: lege-gizona, enpresa-gizona, industria-gizona, elizgizona, plazagizona... Hitz konposatu hauek talde anitz bati edo ezagutu gabeko generoko pertsona bati erreferentzia egiten badiote, "gizon" osagaia alditu beharko da "-ari" atzizkia, "langile", "pertsona" ... bezalako formengatik.

- *legelaria, enpresaria, industrialaria, kultur-pertsona, eliz-pertsona, plaza-pertsona, itsas-langilea...*

3- "GIZ" - ERROAREN ERABILERA GENERIKOA

Gai eztabaidatua izan da "giz" –erroa modu generikoan erabiltzea edo ez; bi jarrerara nagusitu dira:

- 1) "giz"-erroaren erabilpen generikoa erabiltzearen kontrakoak, erro hori "gizona" hitzetik eratortzen delako.
- 2) Erabiltzearen aldekoak, hiztunek hitzen etimologiaren eta bilakaeren kontzientziarik ez dutela argudiatzen dutenak.

Lehengo jarreraren jarraitzaileak hainbat hitz arbuiatzen dituzte; gizakia, gizartea, gizabanakoa, gizatasuna... (pertsona, jendarte, indibiduo, jendetasuna...) bezalako formak erabiliz.

Bigarren jarreraren erabiltzaileek, berriz, ez dute hitz horien erabileran arazorik ikusten.

Edozen modutan ere, egungo "hizkuntza ez sexistarako gida" ugarik "gizakia" proposatzen dute generikoa adierazteko, baina behin ere ez "gizon" hitzaren sinonimotzat erabiltzeko.

Bi jarrerak egokiak dira, hizkuntz ez sexista egoki bat garatzeko.

4- GENEROA DAUKATEN IZENEN PLURALA EDO GENERIKOA

Generoa daukaten izenekin (alaba, semea, aita, ama, erregina...) plurala erabiltzean edo izendatutako pertsonaren generoa ez dakigunean, femeninoa eta maskulinoaren elkarketa erabili behar da eta ez soilik maskulinoa: **seme-alabak, neska-mutilak, andre-gizonak, jaun-andreak...**

Adibidez: Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara

- *Guztiok gara euskaldun, guztiok anai-arrebak gara*

5- "-SA" BUKAERAKO FEMENINOAK

Zubereran "-sa" atzizkia izen femeninoak osatzeko erabiltzen da. Atzizkia daramaten hitz batzuk, bestalde mailegu berriak dira, hala nola: alkatesa, aktorea, ... Euskarak ordea ez du zertan horrelako femeninoak sortu beharrik, dauden izenak ez baitira ez maskulino ez femenino: alkatea, aktorea, idazlea... berez genero gabeko izenak dira.

Adibidez: Edurne Perez alkatesak museo berria bisitatu du

- *Edurne Perez alkateak museo berria bisitatu du.*

6- PREMIAZKOAK EZ DIREN ESTRATEGIAK

Genero gramatikala daukaten hizkuntzek hainbat estrategia erabiltzen dituzte maskulino generikoa sahiesteko (adibidez gaztelaliaz: los profesores / el profesorado). Zuzentasunaren bila, euskal hiztun batzuek ere estrategia horiek baliatzen dituzte, baina euskaraz ez dira beharrezkoak ez baitago maskulino generikorik.

Adibidez: Bosgarren mailako irakasleriak txango bat prestatu du

- ***Bosgarren mailako irakasleek txango bat prestatu dute***

7- ASIMITRIA EKIDITEA

Hitz batzuk ñabardura ezberdinak dauzkate emakumeei eta gizonen aplikatzen zaizkienean.

“Gizon portatzea” esapideak “ausarta izatea” esan nahi du eta ez dauka baliokide femeninorik.

Adibidez: etorri hona gizona bazara

- ***etorri hona ausartzen bazara***

Emakumea, neska, atsoa... gizon eta mutilei aplikatuta irain moduan erabiltzen dira: ez daukazue potrorik, ala?, Zer zarete zuek, neska batzuk? Erabilpen hauek **desegokiak** dira, jakina.

Kontuz hitz batzuen erabilerarekin. Hainbat hitz askoz gehiago erabiltzen dira emakumeak kalifikatzeko gizonak kalifikatzeko baino: txolina, txatxala, pinpirina, panpoxa, kaxkarina, pertxenta... Bestalde “mari” osagaia erabiltzen da emakumezkoen erdeinuz izendatzeko: mari-matraka, mari-apain, mari-maistra...

Andereño tratamenduak ezkongabearen egoera adierazten du eta ez dauka baliokide maskulinorik, beraz ez da erabili behar.

Adibidez: Urrutia andereñoa eta Perez jauna

- ***Urrutia andrea eta Perez jauna***

8- JAUZI SEMANTIKOA

Batzuetan termino generikoa (emakume eta gizonentzako) erabiltzenda, generiko dela ulertaraziz, eta gero, momentu jakin batean, aditzera ematen da termino hori ez zela benetan orokorra, baizik maskulinoa soilik.

Adibidez: Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, neskekin ligatzen saiatu...

- ***Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, beste gazte batzuekin ligatzen saiatu...***

9- ANDROZENTRISMOA

Adierazpen batzuetan ulertzen da gizona munduaren ardatza eta neurria dela. Izan ere, batzuetan badirudi mundua gizonek bakarrik osatzen dutela.

Adibidez: Frantziako iraultzaren ondorioz sufragio unibertsala ezarri zen.

- ***Frantziar iraultzaren ondorioz gizon guztientzako sufragio unibertsala ezarri zen.*** (kontuan hart behar da emakumeak ere bazeudela Frantzian eta ez zituztela eskubide horiek lortu une horretan)

10- ASIMETRIA MEZUETAN ETA TRATAERAN

Generoari egozten zaizkion rol eta ezaugarrien bereizketa presente dago une oro. Emakumeak, estetika, izaera pasibo eta etxea eta familiarekin lotzen dira gehien bat. Gizonak aldiz, adimen, idar eta kalea eta mundu publikoarekin.

Adibidez: Angelina Jolie-k, beti bezain eder eta elegante, eta Robert de Niro aktore errekonozituak sari bana jaso zuten ekitaldian.

- ***Angelina Jolie eta Robert de Niro aktore errekonozituek sari bana jaso zuten ekitaldian.***

11- SIMETRIAREN ARAUAK

Mezuen bidez transmititzen den sexismoari erreperatzeko, estrategia erraz bat dago kasu askotan ondo funtzionatzen duena: simetria araua. Susmagarria den hitza edo esaldia beste generoari aplikatzea hain zuzen, trataera egokia den edo ez jakiteko. Ziur aski desegokiak irudituko zaizkigu:

- Robert de Niro, beti bezain eder eta elegante, eta Angelina Jolie aktore errekonozituak sari bana jaso dute ekitaldian.
- Boleibol partida gizonek jokatu badute, albisteak ez luke izenburu hau izango: Gorputz ederrak ondartzan.

- Argazki baten oinean ez genuke esaldi hau aurkituko: jendetza bildu zen inaugurazioan. Gizonak, dotore jantzita (...)

Horretaz jabetzea nahikoa da pertsonen trataera desegokia zuzentzeko.